

## **Ordaindu gabeko zaintza lana**

Gaur egungo zaintza-erregimena bidegabea, desorekatua eta mugatua da.

Emakumeak\* gara bizitzari eusten diogunak, eta oso modu desparekatuan egiten dugu; esplotazio eta prekarizazio baldintzetan. Emakumeak ordaindu gabeko zaintza lanen hiru laurdenaz arduratzen gara! Labur esanda, emakumeek gehiegi egiten dugu lan, gehiena ez dago ordaindua, ez dago errekonozimendurik eta ondorioz, ikusezina da.

Zaintza-lanak, asko dira: medikazioa antolatu eta eman, janaria prestatu eta zerbitzatu, arropa aldatu, zainduari ohetik altxatzen lagundu eta komunera lagundu, medikura eraman, kalera irten, ilea apaindu, masajeak eman, ariketak egin, entzun eta hitz egin, bakarrik ez utzi, present egon, lagundu, erakutsi, hezi, Z A I N D U k ezinbesteko lan pila barnebiltzen ditu. 24 orduz eta astean 7 egunez! Urteetan zehar burututako baina ordaindu gabeko zenbat eta zenbat zaintza lan!!!

Aldiz, pribilegio tokietan (botere politiko eta ekonomikoak, erakunde publikoak, enpresa pribatuak, gizon-izatea, zuri-izatea...) zaintzaren erantzukizunari uko egiten zaio sistematikoki.

Baina zaintzak bizitza ziklo guztietan, egoera eta testuinguru guztietan dira beharrezkoak, intentsitate maila ezberdinetan bada ere, bizitzaren sostengarritasuna zaintzetan oinarritzen delako!

Hau horrela izanik zaintzarako eskubide kolektiboaren aldeko apustua egin behar dugu; guztiok, bizi osoan zehar, askatasunez eta konpromisoz, zaintza eskaini eta jasotzeko eskubidearen alde!

Zenbateraino, nola eta nor zaindu nahi dugun erabaki ahal izatea, zenbateraino, nola eta nork zaintzea nahi dugun; zaintzarik ez dugula nahi erabakitzeko eskubidea barne! modu kolektiboan ulertzen dugu, eta ez modu indibidualizatuan.

- Euskal Herrian, ez ditugu nahi , zaintzarako zerbitzu gero eta pribatizatuagoak!
- Euskal Herrian ez ditugu nahi erabat feminizatutako eta arrazializatutako zaintza-lanak!

- Euskal Herrian, ez dugu nahi familietan ematen den esplotazio patriarkala!

Emakumeek ez ditzatela gehiago beren bizitzak inmolatu zaintzeko betebeharraren izenean!

Gaur egun, ez zaintzea pribilegio bat da!!! Gizonezkoak utzi itzazue zuen pribilegioak alde batera, hartu zaintzen ardura, partekatu zama. Batu feminismora!

Denon bizitzak erdigunean!